

# Antropologia feministaren sorrera eta teoria antropologiko feminista nagusiak

**Maria Ruiz Torrado**  
Euskal Herriko Unibertsitateko ikaslea

Artikulu honetan antropologia feministak bere sorreratik —60ko hamarkadaren bukaeran eta 70eko hamarkadaren hasieran— gaur egun arte izandako bilakaera aztertzen saiatuko gara, bere baitan garatutako ikuspegi eta planteamenduen berri emanez. Lehen atalean, emakumeen arteko aniztasunaren ideia eta genero kontzeptura iritsi arteko bidea aztertuko dugu. Bigarren atalean, azalpen sinbolikoak eta materialak (marxistak) ikusiko ditugu. Azkenik, hirugarren atalean, gaur egungo ikuspegi feministak azalduko ditugu. Kontuan hartu behar dugu teoria antropologikoaren berrikuspena eta kritika, eta eredu antropologiko berrien sorrera bultzatu direla. Azken finean, xedea da kultura ezberdinetan emakumeek benetan egiten eta pentsatzen dutena ikasi eta deskribatzea eta genero arteko harremanak ikertzea.

This article analyses the development of the Feminist Anthropology from its origins —at the end of the 60's or the beginning of the 70's— to the present. In section 1, we will take a broad look at how the idea of women's plurality and the concept of gender were developed. In the second section, we will explore the symbolic explanations and the marxist explanations. Finally, in the last section, we will introduce the current feminist theories/issues. We need to keep in mind that the revision of the anthropologist theory and the emergence of the criticism and new anthropologist models have been promoted. In sum, the aim is to describe and study what women actually do and think as well as analysing gender relations.

## Sarrera

Antropologia feminista XX. mendearen bigarren zatian sortu zen. Garaiko tesuingurua kontuan hartu behar dugu, kasurako, esparru soziopolitikoan gertatutako aldaketak, paradigma edo eredu antropologiko berrien agerpena, tresna teoriko eta metodologiko berrien hedapena, irakaskuntzaren demokratizazioa, eta bereziki, feminismoaren eragina.

Bi kezka nagusirekin jaio zen antropologia feminista. Alde batetik, emakumeen ikusezintasuna, eta bestetik, androzentrismoa antropologian<sup>1</sup>. Lehenengoari dagokionez, emakumeen portaera betidanik ikasi da antropologian, baina ugalketarekin erlazonaturik: familia, senar-emazteak, senidetasuna... Ondorioz, emakumeak ezkutatuak izan dira gizarte-aktore bezala, paper horretan ez baitira ikertuak izan. Beraz, azterketetan ez da emakumeen benetako funtzio edo izaera soziala islatu (Esteban, 1998: 4).

Antropologiaren androzentrismoari dagokionez, hiru maila bereizi behar ditugu. Lehenik eta behin, antropologoa dugu. «Ikerlariak “a priori” espektatiba batzuk izango ditu, ez bakarrik gizon eta emakumeen arteko harremanaz, baizik eta baita harreman horien eraginaz gizarte osoa aztertzerakoan ere» (*Ibd.*: 5) eta posible da berak gizonei dagokiena garrantzitsuagoa dela pentsatzea. Bigarrenik, ikerturiko gizartea dugu. Izan ere, gizarte batzuetan ez da emakumei buruz hitz egiten edo ez zaie garrantzirik ematen emakumeen gaiei. Gizarte askotan emakumeak gizonen menpean daudela pentsatzen da eta hori da antropologoari erakusten zaiona edota berak ikusten duena, besterik ez badu hausnartzen behintzat (*Ibd.*: 5). Hirugarrenik, marko teoriko-kontzeptualak ditugu. Antropologoak bere gizarteko pentsaera hegemonikoa alde batera utzi behar du. Izan ere, guk Mendebaldean baditugu balio eta iritzi batzuk; esate baterako, amatasunari dagokionez, gure gizartean pentsatzen da ume bat ondo hezteko bere amarekin egon behar dela. Baina, ezin gara horrelako ideiekin joan beste gizarte batzuk aztertzerara. Etnozentrismoan erortzeko arriskua sortzen da. Era berean, Mendebaldeko asimetria- ezberdintasunak aintzat hartzen baditugu, beste herriak gaizki ulertzeko arriskua ere sortzen da.

Gauzak horrela izanik, antropologia feministak aurrekoarekin hautsi nahi izan du, teoria antropologikoak berrikusiz, kritikatu eta eredu antropologiko berriak sortuz. Gizarte eta kultura bakoitzean benetan emakumeek esan, pentsatu eta egiten dutena ikasi eta deskribatu nahi du; halaber, emakumearen eta amaren parekatzea deuseztatu nahi du (*Ibd.*: 6) eta genero arteko harremanak ikertu. Lan honetan, antropologia feministak bere sorreratik gaur egun arte izandako bilakaera aztertzen saiatuko gara.

---

1. «Androzentrismoa (...) gizonek, kolektibo modura —gizartean egiten dutena eta beraiekin erlazonatzen dena— gizartea aztertzeko orduan erdian jartzea eta beraz, emakumea bigarren leku batean uztea da. Androzentrismoa eta sexismoa lotu-loturik doaz» (Esteban, 1998: 4). Androzentrismoa zientziaren ezaugarrietako bat izan da eta, hala, feministen kritikak jaso ditu.

## 1. Emakumea, emakumeak, generoa

Oro har, antropologia feminista 60ko hamarkadaren amaieran edo 70eko hamarkada hasieran jaio zela esaten da. Baina, data zehatzari dagokionez, ez dago adostasunik. Kasurako, Susana Narotzky-ren ustez (1995), 1967ko uztaillean kokatu behar dugu antropologia feministaren jaiotza-data, *Anthropological Quarterly* aldizkariak emakumeei buruzko lehen monografikoa egin zuenean. Sandra Margen-en iritziz (1993), aldiz, 1974-1975 artean finkatu behar dugu data, hiru argitalpen hauekin batera: *Women, Culture and Society* (Rosaldo eta Lamphère, 1974), *Toward an Anthropology of Women* (Reiter, 1975) eta *Women and Men: An Anthropologist's View* (Freidl, 1975).

Kontuan hartu behar dugu antropologia feministak hainbat aitzindari izan zituela emakume antropologo funtzionalista eta iparramerikarren artean. Gogoan izan behar ditugu, besteak beste, Ruth Benedict, Mary Douglas, Hildred Geertz, Phyllis Mary Kaberry, Lucy Mair, Margaret Mead eta Audrey I. Richards<sup>2</sup>.

Halaber, azpimarratu behar dugu sorreratik antropologia feministak epealdi ezberdinak ezagutu dituela bere bilakaeran. Izan ere, emakumearen antropologia (60-70eko hamarkadetan), emakumeen antropologia (70-80ko hamarkadetan) eta genero-antropologia (80ko hamarkadatik aurrera) bereizi behar ditugu. Bilakaera horretan, antropologia feministak emakumeen mendekotasunaren jatorria bilatze-tik mendekotasunaren arrazoiak, tankerak eta edukiak aztertzerara pasatu da; ikuspegi kulturalista eta marxistetatik postmodernoetara; hipotesi bakarra kontuan hartetik konplexutasun eta aniztasunaren azterketara; berdintasunaren azterketatik diferentziaren eta aniztasunaren azterketara; emakumeek egindako ikerkuntzatik gizonek eta emakumeek egindako ikerkuntzara; eta azkenik, emakumeei buruzko ikerketatik gizonei eta emakumeei buruzko ikerketara igaro da. Beraz, antropologiaren eta feminismoaren arteko harremana aldatuz joan da, kezka berriak sortu direlarik (*Ibd.*: 16).

---

2. Bereziki, aipagarriak dira Richards, Kaberry eta Mead-en ekarpenak. Lehenengoa, Bronislaw Malinowski-ren inguruan sortutako antropologo gazteen taldeko partaidea izan zen. 30eko hamarkadan, Afrikan egindako landa-lanari ekin zion. Zehazki, bamba herria aztertzerara bidali zuten, elikadura eta gizarte-antolaketa matrilineala emakume batek aztertzeko gai aproposenak zirelakoan. Emakumeen esperientziei buruzko bere interesa, batez ere, bi lanetan islatu zen: *Lan, Labour an Diet in Northern Rhodesia: An Economic Study of the Bemba Tribe* (1939) eta *Chisungu. A Female Initiation among the Bemba* (1956). Kaberry-ri dagokionez, Malinowski-rekin eta Richards-ekin lan egin zuela azpimarratu behar dugu. 30eko hamarkadan, Australia iparraldeko aborigenekin burutu zuen landa-lana, emakumeen paperari garrantzi berezia emanez. Bere lanaren emaitza *Aboriginal Woman: Sacred and Profane* (1939) izan zen, zeina, bere hitzetan «resume mi afan en retratar a la mujer aborigen como ella es en realidad, una compleja personalidad social, poseedora de sus propias prerrogativas, deberes, problemas, creencias, rituales y puntos de vista». Ondoren, Kamerungo grassfieldsen inguruko ikerlan bat egin zuen, berriro emakumeei era berezian erreparatu. Lan horren emaitzak *Women of the Grassfields. Study of the Economic Positions of the Women in Bamenda, British Cameroons* delakoan jaso zituen (Stolcke, 1996: 337-339). Mead-ek Ruth Benedict, Franz Boas eta Bateson-ekin lan egin zuen eta herri ugari aztertu zituen 30eko hamarkadan zehar, besteak beste, manus, arapesh, iatmul eta Baliko errealtateak jaso zituen. Kultura bakoitzean eraikuntza ezberdinak aurkitzen zituela adierazi zuen, eta hori rol kulturalekin lotu zuen. Halaber, gizarteak baldintzatzen zituen jokaerak eta estereotipoak, hots, arau kulturalak, azpimarratu zituen. Sexua eta tenperamentuaren artean ez zegoela loturarik defendatu zuen ere (Mead, 1972).

70eko hamarkadan, batez ere, aurreko androzentrismoaren kritikak eta emakumeen egoeraren azalpen-saiakerak egin ziren. Aipatu moduan, hasieran, “emakumeari” buruz hitz egiten zen, baina hori kategoriatu unibertsala ez dela ikustean —emakumea ez da errealitate bat eta bakarra— eta emakumeen artean dauden ezberdintasun nabarmenez jabetzean, “emakumeei” buruz solastatzen hasi ziren. Datu-bilketa ere bultzatu zen, informazio ugari falta zenez gero.

Thuren-en hitzetan:

La antropología de la mujer nació, pues, de esa sensación: ¡los antropólogos —lo mismo que los demás— se habían olvidado de las mujeres!; hablaban de ellas, pero más que nada como elementos ineludibles en los sistemas de parentesco; no existían apenas descripciones de lo que hacían las mujeres en la vida cotidiana y, menos aún, trabajos basados en su interpretación de la sociedad, de la religión, del sistema de parentesco, etc. (Thuren, 1992: 32).

Beraz, argi zegoen emakumeak ikusgarri bilakatzeko lan egin behar zela, baina hori ez da zeregin erraza:

Pronto se vió, sin embargo, que esta nueva tarea iba a resultar mayor y más complicada de lo que se había creído. Como alguien dijo, no se trataba de una receta de cocina, “añadir mujeres y remover”. No había sólo que recoger los nuevos datos y colocarlos en las casillas de siempre; había que crear nuevas casillas, nuevos conceptos, y había que criticar los viejos conceptos y las conclusiones que se basaban en ellos (Ibid.: 33).

Horrela, 80ko hamarkadan kontzeptu berriak garatzeari ekin zitzaion. Testuinguru horretan, “genero” kontzeptua nabarmendu behar dugu, zeren generoa eta sexua gauza ezberdinak direla argi geratu baita.

Sexua, nolabait, ezaugarri fisiko, fisiologiko, anatomiko, biologiko eta abarrak dira. Askotan, ugaltze-ahalmenarekin lotzen da, baina hori baino askoz ere gehiago da —adibidez, gizon eta emakume antzuek daude— eta beste gaitasun batzuekin ere erlazionaturik dago. Maiz, sexua zeozer objektiboa eta neutrala dela pentsatzen da, baina hori ez da zuzena. Izan ere, sexuaren inguruan egiten diren interpretazioak aintzat hartu behar ditugu. Sexua modu ezberdinean ulertzen da leku ezberdinetan eta era berean, era ezberdinean ulertu da Historian zehar, azken finean, eraikuntza kulturala delako. Halaber, sarritan pentsatu da generoa sexua oinarritzat hartuz eratzen dela, baina hori ere okerra da, beti ez baita horrela gertatzen (Laqueur, 1994).

Generoa, aitzitik, boterearen eta espazioaren bereizketa eragiten duten gizonei eta emakumei buruzko irudikapen eta jarduera sozial oro da. L. Beneria-ren arabera, gizonezkoak eta emakumezkoak bereizten dituzten jarrerak, sentimenduak, portaerak, balioak eta abarrak biltzen dituzten eraikuntza sozialen multzoa da. Era berean, maila ezberdinetan garatzen den prozesu historikoa da, estatuan, eskolan, lanean, etxean... Prozesu horrek ezaugarri eta jarduera horien hierarkizazioa dakar, maskulinoa denari garrantzi handiagoa ematen zaiolarik. Thuren-en iritziz,

Si el sexo es el aspecto natural o biológico de las diferencias entre hombres y mujeres (...) el género es todo lo demás: todas las ideas acerca de los sexos, empezando por la de cuántos sexos hay (que no simple son dos), y toda la organización

social que parte de esas ideas; los criterios para la categorización, las representaciones, la división del trabajo, el reparto de responsabilidades (Thuren, 1992: 47).

Generoa gizarte guztietan antolaketaren oinarritzko elementuetako bat denez, bere azterketa funtsezkoa da edozein gizarte-fenomeno ulertzeko.

Thuren-en ustez, 90eko hamarkadatik aurrera, batez ere, autokritika azpimarritu beharra dago. Generoaren antropologiak egindako ibilbidea eta handik aurrera jarraitu beharreko bidearen inguruan hausnartu behar izan baitu (*Ibd.*: 51).

## 2. Azalpen sinbolikoak eta materialak (marxistak)

Teoria feministen bilakaera aztertzerakoan, hasierako antropologia feminista anglosaxoiari arreta berezia eskaini behar zaio, non bi ikuspegi nagusi egon ziren: alde batetik, generoaren ikuspegi sinbolikoa edo kulturala (unibertsalistak), eta bestetik, generoaren ikuspegi materialista (soziologiko-marxista).

Ikuspegi sinboliko edo kulturalak, oro har, aztergai zen kulturen zer zen gizon izatea eta zer zen emakume izatea aztertzen zuen, “gizona” eta “emakumea” era-keta sinbolikotzat hartzen zirelarik. Ikuspegi unibertsalista zuten eta dikotomiekin —natura/kultura edota publikoa/pribatua— eta hipotesi unikausalekin lan egiten zen, hau da, arrazoi bakarra bilatzen zen. Baina, autokritika nabarmen-tzekoa da, ikuspegi horri jarraitu ziotenek berehala ikusi eta onartu zutelako oker zeudela. Sherry Ortner, Michelle Rosaldo eta Nancy Chodorow-en lanak aipatu behar ditugu, besteak beste.

Sherry Ortner-ek emakumeen mendekotasun unibertsala azaldu nahi izan zuen “¿Es la mujer con respecto al hombre lo que la naturaleza con respecto a la cultura?” lanean (1979 [1974]). Azalpen orokor bat bilatu zuen, baina ez azalpen biologizista bat, kulturala baizik. Bere ustez, alor ezberdin askotan sumatzen zen emakumeek jasandako mendekotasuna, esaterako, ideologia kulturaletan, “emakume=kutsatzaila” ideian, erritoetan, emakumeen mendekotasuna ziurtzat hartzen zuten logika kulturaletan... Ortner natura/kultura binomioan oinarritu zen emakumeak kultura guztietan mendekoak zirela azaltzeko. Bere iritziz, natura kulturaren azpitik zegoen beti —edonon, kulturak natura kontrolpean eduki nahi zuela zioen— eta ideia hori emakumeei eta gizonei aplikatu zien. Izan ere, emakumeak naturatik hurbilago zeudela —baina ez bete-betean naturan— eta gizonak kulturatik hurbilago zeudela iruditzen zitzaion. Hiru arrazoi eman zituen hori argudiatzeko: lehenik eta behin, emakumeen fisiologia, bigarrenik, euren rol soziala (amaren eta haurren arteko harremanarekin lotuta) eta hirugarrenik, euren egitura psikologikoa. Esan bezala, ez zituen emakumeak naturan guztiz ikusten; nolabait, maiz naturaren eta kulturaren artean zeudela uste zuen, bitartekari moduan. Hortaz, anbiguotasuna nagusitzen zen.

Michelle Rosaldo-k Ortner-enaren antzeko azalpen orokorra eta unibertsalista eman zuen “Mujer, cultura y sociedad: una visión teórica” (1979 [1974]) lanean, domestiko/publiko dikotomia erabiliz. Kontuan hartu behar dugu elkarrekin lan egin zutela. Rosaldo-k defendatzen zuen esparru pribatua emakumeekin lotuta zegoela eta publikoa gizonekin. “Domestiko” esatean «aquellas instituciones mínimas y modos de actividad que se organizan en torno a una o más madres e hijos/as»

ulertzen zuen eta “publiko” esatean, aldiz, «las actividades, instituciones y formas de asociación que unen, clasifican, organizan o reúnen a determinados grupos de madres e hijos/as» ulertzen zuen (Maquieira, 2001: 147). Banaketa horrek bote-rearen eta betebeharren antolaketan eragina zuela defendatzen zuen, emakumeak mendeko egoeran gelditzen baitziren. Ondorioz, emakumeek gizartearekin lotutako gaietarako buruzko informazio gutxiago zutelako, beraien iritziei garrantzi gutxiago ematen zitzaizela eta gizonek kaosarekin erlazionatzen zituztela esan zuen (Thuren, 1992: 37-38).

Nancy Chodorow-ek amatasuna hartu zuen ardatz “Family Structure and Feminine Personality” (1974) lanean, baina ez amatasun biologikoa (haurdunaldia, erditzea, edoskitzea...), bere ondorio soziala baizik, emakumeak izan ohi baitira haurren zaintzaren arduradunak. Chodorow-en ustez, hori ez zen biologikoki ezinbestekoa, baina praktikoa suertatzen zen eta horrela gertatu ohi zen. Bere iritziz emakumeak ama ziren, gizonak aita ez ziren modu batean, baina hori ez zen nahitaez horrela izan behar eta egoera ezberdina izango litzateke kulturak aitasuna beste modu batean eraikiko balu. Chodorow-en planteamenduari jarraiki, neskek eta mutilak txikitatit egoera oso ezberdinak bizitzen zituzten; jaioberritan, ama da pertsonarik garrantzitsuena, bai neskentzat, baita mutilentzat ere, baina neskak bere sexu bereko pertsona batekin mantentzen du funtsezko harreman hori, eta mutilak beste sexukoa den pertsona batekin. Chodorow-ek, ikuspegi psikoanalitiko batetik, oinarritzotzat hartzen zuen alde hori (*Ibd.*: 34-35).

Azalpen sinboliko hauek hainbat kritika jaso zituzten. Hasteko, natura/kultura eta domestiko/publiko dikotomiak ez dira edonon aplikagarriak eta gure artean ere, ez dirudi era argian bereiz ditzakegunik. Halaber, kontzeptu batzuekin arazoak egon dira; kasurako, “kutsadura”ren kontzeptua ezin da edonon aplikatu. Era berean, “emakume” eta “ama” parekatzea kritikatu da, hau da, amaren ikuspegitik ulertzea emakumeak, hori baino askoz ere gehiago baitira. Baina, aipatu dugun legez, ikuspegi honi jarraitu ziotenek berehala egin zuten beren autokritika. Esate baterako, Rosaldo-k 80ko hamarkadaren hasieran egin zuen bere lanaren kritika. Bere aburuz, estrukturalismoaren eraginez erabili zituzten natura/kultura eta domestiko/publiko dikotomiak. Nolabait, estrukturalismoaren kategoriak eta ikuskerak baliatu zituzten eta, ondorioz, teoria nahiko esentzialistak —baina, ez biologizistak— osatu zituzten. Ordura arte, gizartean zeuden ezberdintasunak berezkitzat jotzen ziren eta horrela aztertu zituzten.

Bestalde, generoaren ikuspegi materialista edo soziologiko-marxistari dagokionez, Engels-en lanak oinarritzat hartuz, mendekotasunaren graduak azaltzeko ahaleginak azpimarratu behar ditugu, tokian tokiko azalpenak eta faktore ezberdinak —batez ere, ekonomikoak eta sozioestruturalak— bilatu zirelarik. Gainera, dimentsio historikoa ere kontuan hartu zuten analisisan, garai ezberdinetan, egoera ezberdinak azaldu direlako. Gizartean arteko ezberdintasunekin lan egin zuten eta klaseari, etniari... erreparatu behar zitzaizela pentsatzen zuten. Hortaz, genero-ikuspegira hurbiltzen ari ziren. Bereziki aipagarriak dira Esther Boserup, Eleanor Leacock eta Karen Sacks-en etnografoak.

Eleanor Leacock marxista zen eta Engels-en lanean oinarritu zen. “Women’s Status in Egalitarian Society: Implications for Social Evolution” (1978) izeneko

lanean, berdintasunaren hipotesiarekin lan egin zuen. Izan ere, mendekotasunean graduak baldin badaude, gizarte batzuk berdinzaleagoak izan behar dira. Bere ustez, gizarte aurreklasistak ziren berdinzaleenak eta horregatik lan egin zuen talde ehiztari-biltzaileekin. Aipagarriak dira, orobat, egin zituen zenbait kritika: dikotomien erabilera, amatasuna edo amaren eta seme-alaben arteko harremana gizartearen oinarritzat hartzea, emakumeen lana soilik zaintza dela pentsatzea, etab. (Moore, 1991: 47).

Karen Sacks ere marxista zen eta ildo beretik, berdintasunaren hipotesia erabili zuen “Engels Revisited: Women, the Organization of Production, and Private Property” (1974) lanean. Engels-en tesiaren arabera, emakumeak gizarte aurreklasistetan eta jabego pribatua ez duten gizarteetan hobeto bizi ziren. Baina, Sacks-en iritziz, hori ez zen beti horrela eta bi sistema ekonomiko bereizten zituen: komunala eta familiarra. Bere ustez, emakumeak hobeto bizi ziren sistema komunaletan, eta familiaren menpe gelditzean, okerrago zeuden. Ekarpenean aipagarria egin zuen familia barruan emakumeak arreba moduan eta emazte moduan berezitu behar zirela esatean, askotan, hobeto bizi direlako arreba gisa.

*La mujer y el desarrollo económico* (1993 [1970]) lanearekin, Esther Boserup lehenetarikoa izan zen aztertzen nolakoak diren emakumeen lanak munduan zehar eta nola sailka daitezkeen. Halaber, lehenetarikoa izan zen esaten gizonak ez direla beti taldearen hornitzaileak, emakumeen lana ezberdina dela leku ezberdinetan, lanak ezberdinak direla testuinguruaren arabera...

Estebanen arabera,

Autore hauek argi utzi dute genero-harremanak eraldatuak izan direla erabat munduaren alde askotan, kolonizatzaile, mendebaltze eta nazioarteko kapitalismoaren eskutik. Eta gero eta ikerketa gehiagok erakusten dute emakumeen gizonekiko menpekotasuna hazkunde eta lan ordainduaren bidez gehituz joan dela (Esteban, 1998: 15).

### 3. Gaur egungo ikuspegiak

Gaur egun, antropologia feministaren ekarpenak eta generoaren garrantzia, hein handi batean, onarturik daude. Oraindik kontrako jarrera batzuk dauden arren<sup>3</sup>, bere pisua areagotuz doa eta gero eta gutxiago dira antropologo feministen ekarpenak kontuan hartu gabe egiten diren ikerlanak (*Ibd.*: 16).

Virginia Maquieira-ri jarraiki, egungo antropologia feministaren ezaugarriak honakoak direla esan dezakegu. Lehenik eta behin, genero-harremanen ikerkuntza aipatu behar dugu, gizarte-antropologian oinarritzko baldintza kontzeptuala bilakatu denez gero. Antropologia feministak ez ditu soilik emakumeak aztertzen. Helburua ez da emakumeen ikerketa, generoen arteko harremana baizik (*Ibd.*: 16). Hala, emakumeen eta gizonen arteko erlazioak, emakumeen artekoak eta gizonen

---

3. Ikertzaile askok ez dituzte teoria eta lan feministak kontuan hartzen. Hori argudiatzeko, zio ezberdinak aipatu izan dituzte, baina arruntenetariko bat lan feministak “erradikalak” eta “militanteak” direla izan da. Oraindik ere feministek egindako ekarpenen inguruan ezagutza falta dago eta, ondorioz, beraien lanak askotan gutxietsiak izan dira. Horrela, oraindik maizegi lan askoren marko teorikoetan erreferentzia feministen falta suma dezakegu eta horrek lanak mugatzen ditu, egile batzuk horretaz jabetzen ez diren arren (Díez; Esteban, 1999: 17).

artekoak jorratzen dira (Thuren, 1992: 47). Gogoan izan behar dugu genero-sistema ezberdinak daudela eta guztietan daudela botere-mailaketak, bai gizonen eta emakumeen artean, bai emakumeen artean, baita gizonen artean ere (Connell, 1997).

Bigarrenik, testuinguruaren garrantzia azpimarratzen du Maquieira-k. Aldaketa historikoak, sozialak, kulturalak... aintzat hartzen baitira.

Hirugarrenik, genero eta beste estratifikazio-faktoreen uztartzea dugu: klase soziala, etnia, adina, nazionalitatea, erlijioa, sexualitatea... Kasurako, zenbait ikertzailek klase, genero eta etniaren arteko loturak batera ikasi behar direla azpimarratu dute. Horien artean, Verena Stolcke aipa dezakegu. Bere ustez, Mendebaldean kategorizatzeke eta hierarkizatzeke erabili diren hiru zapalkuntza-ardatz horiek batera uztartu dira (Stolcke, 1992) eta ezin da horietako bat ulertu beste biak kontuan hartu gabe (Esteban, 1998: 16). Adibidez, begi-bistakoak diren ezberdintasunak daude emakume beltzen eta zurien egoeren artean edo emakume heterosexualen eta lesbianen egoeren artean (Díez, Esteban, 1999: 24). Egia esan, zuriak, mendebaldarrak eta heterosexualak ez diren emakumeen ekarpenak funtsezkoak izan dira berriskupen feminista aurrera eramaterakoan (*Ibd.*: 12).

Laugarrenik, aniztasun kulturala bainoago, errealitate soziokulturalen antzekotasunen garrantzia aipatu behar dugu.

Bosgarrenik, ezin dugu ahaztu ikertzaile feministek egindako dikotomia kontzeptualen kritika, hala nola, gizonak/emakumeak, natura/kultura, etxea/lana, pribatu/publiko, gorputza/arrazoia, emozioak/arrazoia...

Seigarrenik, praktikaren analisiaren eta egitura eta ekintza sozialen arteko harremana azpimarratu behar dugu. Azkenik, Maquieira-k aldaketaren analisiaren garrantzia aipatzen du. Izan ere, dinamikotasuna kontuan hartu beharreko zerbait da.

Estebanen aburuz, konplexutasuna eta aniztasuna ere gaur egungo analisi feministen ezaugarri aipagarriak dira. Izan ere, hamarkada gutxi batzuetan elementu eta irizpide berri asko sortu dira ( Esteban, 1998: 17) eta sortzen ari dira etengabe. Azken finean, pentsatzeko eta errealitatea deskribatzeko kategorizazio berrien beharra dugu ( Díez, Esteban, 1999: 15).

Beraz, laburbilduz esan dezakegu antropologia feministak funtsezkoak suertatzen ari diren ekarpen teoriko eta metodologikoak egin dituela azken hamarkada hauetan emakumeen eta gizonen errealitateak era egokian jasotzeko. Oraindik lan handia dago egiteke, bidea luzea eta zaila denez gero, baina urrats garrantzitsuak egin direla ukazina da.



#### 4. Bibliografía

- Connell, R. W. (1997): "La organización social de la masculinidad", in T. Valdés eta J. Olavarría (arg.), *Masculinidad/es. Poder y crisis*, Isis Internacional, Santiago de Chile.
- Díez Mintegui, C. eta Esteban, M. L. (koord.) (1999): "Introducción", *Antropología feminista: desafíos teóricos y metodológicos. Ankulegi-Revista de Antropología Social*, zenbaki berezia.
- Esteban, M. L. (1998): "Antropología eta feminismoa", *Uztaro*, **24**, 3-17.
- Laqueur, Th. (1994): *La construcción del sexo. Cuerpo y género desde los griegos hasta Freud*, Cátedra (Feminismos), Madril.
- Maquieira, V. (2001): "Género, diferencia y desigualdad", in ZZ.EE., *Feminismos. Debates teóricos contemporáneos*, Alianza Editorial (Ciencias Sociales), Madril.
- Mead, M. (1972): *Experiencias personales y científicas de una antropóloga*, Paidós, Buenos Aires.
- Moore, H. (1991): *Antropología y feminismo*, Cátedra (Feminismos), Madril.
- Stolcke, V. (1992): "¿Es el sexo para el género como la raza para la etnicidad?", *Mientras Tanto*, **48**, 87-111.
- , (1996): "Antropología del género", in J. Prat eta A. Martínez (koarg.), *Ensayos de Antropología cultural*, Ariel, Bartzelona.
- Thuren, B. M. (1992): "Del sexo al género, un desarrollo teórico. 1970-1990", *Antropología*, **2**, 31-55.

